

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4839

296/2024 DEKRETUA, urriaren 8koa, Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokalak kargutik kendu, izendatu eta berritzeko dena.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren atariko titulua II. kapituluaren daude araututa interes orokorrekoen artean sailkatutako portuak. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuak sartzen dira interes orokorrekoen artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta bere lurraldean dauden interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako legegintzako errege-dekretuak beharrezko neurriak ezartzen ditu autonomia-erkidegoek portuetako agintaritzen antolaketa-egituran partaidetza handiago izan dezaten. Izan ere, agintaritzaren egitura horiek portuen artezkaritza-organo publikoak dira.

Zehazki, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua 1. eta 2. apartatuek hau ezartzen dute:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanaria eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiri autonomoek aurreko apartatuko c) letran aipatzen diren bokalak izendatzen dituztenean, irizpide hauek errespetatu beharko dituzte:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkariak, itsas kapitainaz gain, hiru bokalek osatuko dute. Bokaletako bat Estatuaren abokatua izango da, eta beste bat, Estatuko Portuak organismo publikokoa.

b) Autonomia-erkidegoaren ordezkariak, berriz, lehendakariak gain, lau bokalek osatuko dute.

c) Kanaria Uharteetan, kabildo bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, «consell» bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainerako kideen % 33ko ordezkariak izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik honako hauei egokituko zaie ordezkariak: Portu Agintaritzak administratutako portuari edo portuei izena ematen dioten udalei; eta, ondoren, gainerakoei: zerbitzuguneak udal-mugartean zer azalera hartzen duen, hainbateko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen % 66 honako hauen ordezkari izango dira: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberenak, enpresa- eta sindikatu-antolakundeenak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoenak.

Bokalen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkaritza duten administrazio publikoek, entitateek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak organismo publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenek, lehenengo apartatuko c) letran aipatzen direnek, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berritu ahal izango da, hurrengo apartatuan ezarritakoa eragotzi gabe.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkatzan dituzten antolakundek, organismoek eta entitateek hala proposatuta.»

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 8an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Ondoren zehazten diren pertsonak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal kargutik kentzea, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak hala eskatuta:

Aitor Etxebarria Atutxa jauna.

Luis Pedro Marco de la Peña jauna.

2. artikulua.— Ondoren zehazten diren pertsonak Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal izendatzea, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila ordezkari deitzen:

Koldobika Goitia Markuerkiaga jauna.

Miguel Ángel Pérez Escamendi jauna.

3. artikulua.— Aitor Urzelai Inza jauna Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokalaren karguan berritzea, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila ordezkari deitzen.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari bokalak kargutik kendu, izendatu eta berritu izana jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 8an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.